

Haurtxoak eta Antzerkia

Haurtxoak eta Antzerkia". Bi hitz horiek atsegin ditugu, bata bestearen alboan. Asoziazio horrek harritu egin gintuen, eta hainbat gai planteatu zizkigun. Europako antzerki jaialdian, hainbat emanalditan, parte hartu genuenean ezagutu genuen aktorearen eta txikiaren artean egon daitekeen trukaketa hunkigarri eta liluragarria.

Urtebete eta hiru urte arteko txikiak dira benetako publikoa, nahiz eta ikuskizuna gugandik, helduogandik desberdin ikusi. Horiek gorputzarekin behatzen dute, zentzu guztiekin, bihotzarekin eta lehen sentipen horietatik eta horien lagungarri diren zirraretatik abiatuta osatzen dute irudimenezko mundua.

Bizitzaren hasieran daudela kontuan hartuta, hurrek lehen aldiz ezagutzen dituzte gauzak; hori dela eta, jakin-min handia izan ohi dute eta ezagutzen duten hori handiagotzeko sentimendua nagusitzen zaie. Txikienek, mundua ezagutzeko desira horretan, adierazpen artistiko guztien hasieran daude. Ibiltzeko oreka bilatu nahirik, dantzatu egiten dute. Zentzuekin jolastuz, musikarekin egiten dute topo. Material bat miatuz, motrizitate eta zentzumenarekin topatzen dira.

Gure lanarekin, bizitzara eta Artera zabal daitezen lagundu nahi dugu, horiekin gehien gustatzen zaiguna elkarbanatuz: Antzerkia.



Lorategian

Hautzarotik, haurrak irudien munduan murgilduta egoten dira, nahiz eta gehietan modu pasiboan egin. Gure lorategian, antzerkia, bideoa, itzalak eta marrazkiak nahasten dira ikusleei jolas-ikusmen eta ikusmen aktibo bizipena proposatzeko.

“Lorategian eseritako emakume bat ametsetan dabil. Gizon bat iritsi, eta irudien munduan bidaia egitera gonbidatu du. Elkarrekin, zuhaitzen arteko oihala topatu dute, eta oihal hori orri txuri bihurtuko da irudiak sortu eta eraldatzeko... jolastu eta zirrarak agertu beharrean”.

Ikuskizunaren arintasunak olerki unibertso batetara eramaten gaitu, bertan umeek konfidantzaz eta harriduraz mugitzen direlarik.



Lorategian

Teatro Paraíso Antzerkiaren eta Belgikako Guimbarde Antzerkiaren arteko koprodukzioa, urte 1 eta 3 urte arteko haurrei zuzenduta.

Interpretariak	Rosa A. García Sardón Alberto Mtz. Guinaldo edo Iñaki Alfaro
Muntaia Teknikaria	Javier García
Espazio eszenikoa eta jantziak	Elisabeth Schnell
Harmailak	Fred Houtteman
Bideoa	Marc Cerfontaine
Marrazkiak	Alberto Mtz. Guinaldo
Musika	Olivier Bilquin
Argiztapena eta Soinua	Fred Houtteman
Euskarazko Testuak	Kirmen Uribe
Egileak	Charlotte Fallon Rosa A. García Sardón
Zuzendaritza	Charlotte Fallon



EMANALDIEN EGUTEGIA

Ikuskizun hau Teatro Paraíso Antzerkia eta Belgikako Guimbarde Antzerkiaren arteko koprodukzioa da. Charleroiko (Belgika) “Kultura eta Ikusle Txikiak” Jaialdiaren, Vitoria-Gasteizko Antzerkiaren Nazioarteko Jaialdiaren eta Bolognako (Italia) “Etorkizuneko ikuspegiak, Antzerkiaren ikuspegiak” Jaialdiaren laguntzarekin egiten da.

ESTREINALDI OFIZIALA:

➤ **BELGIKA**

Charleroiko Kultura eta Ikusle Txikiak
Jaialdia

2005eko maiatzak 19

➤ **ESPAINIA**

Espainieraz –Te Veo Topaketak –
Zamora

2005eko maiatzak 27

Euskaraz - Vitoria-Gasteizko Antzerkiaren
Nazioarteko Jaialdia

2005eko urriak 29

➤ **ITALIA**

Bolognako “Etorkizuneko Ikuspegiak,
Antzerkiaren Ikuspegiak” Jaialdia

2006ko martxoak 9

SARIAK

➤ **FETEN**

Lehen haurtzarorako ikuskizun onenaren saria.

➤ **LLEIDAKO AZOKA**

Ikuskizun onenaren saria.

Proposamen berritzaile onenaren saria.

➤ **HYUko JAIALDIA (BELGICA)**

Bere edertasun poetikoa eta lehen haurtzarorako bere egokitasunagatik Belgikako Kultura eta Hezkuntza Ministeritzaren saria.